

ENPRESEN ONLINE BANKAREN ERABILERA GIDA



Confirming fitxategia

(SORTZEKO URRATSAK)



P2

URRATSA



Confirming hautaketa




Arreta telefonoa: 944 017 907 Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**

Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Confirming fitxategia**

Confirming fitxategiak sortzeko ez da beharrezkoa inolako programarik instalatzea edo deskargatzea. **Enpresen Online Bankan "online sortzaileak"** ditugu, fitxategia momentuan bertan sortzeko.

**Enpresen Online Bankatik sartzeko::**

"Fitxategiak (eskuineko menu bertikala) > Sorrera > Online sorrera > Confirming"



Online fitxategien sortzaileak

Online sorkuntzaren zerbitzuarekin sortak sortu eta Lineako bankuaren bidez bidal ditzakezu, ezer deskargatu eta instalatu beharrik gabe, eta datuak beti eskuragarri izango dituzu edozein ordenagailutatik.

SEPA formatuak

- Kobrantsak
 - [Kobratzeko ordainagiriak eta aurreratuak \(19-14\)](#)
 - [Kobratzeko ordainagiriak \(19-14\) sinplifikatua](#)
- Ordainketak
 - [Transferentziak eta nominak \(34-14\)](#)

Otros formatos*

- Kobrantsak
 - [Ordainagiriak \(q19\)](#)
 - [Ordainagiriak \(q19\) sinplifikatua](#)
 - [Kredituen aurrerakinak \(q58\)](#)
- Ordainketak
 - [Transferentziak eta nominak \(q34\)](#)
 - [Mugaz gaindikoak \(q34-1\)](#)
 - [Helbideratutako ordainketak \(q68\)](#)
 - [Confirming](#)

* AEB sortzaileetan (agindu-emeleak, onuradunak, etab.) biltegiatutako datuak SEPA formatuko sortzaileetara aldatzeko bateragarritasun-arrazoiak direla-eta, horiek hartzen dituen fitxategi bat sortu behar da eta hura inportatu. Laguntzarik behar izanez gero, deitu ohiko laguntza-telefonora.



“Confirming” sorgailua hautatzean, honako lan leiho hau bistaratuko da.



Fitxategia sortzeko urrats guztiak leiho honen inguruan garatuko dira.



Online sorgailuak nola funtzionatzen duen zehatz-mehatz ulertzeko adibide bat jarriko dugu, “**Empresa Metalúrgica SL**” bezeroa, bere hornitzailea den “**Suministros Acero**” enpresari ordaindu behar dion 35.000€-ko fakturarako fitxategi bat sortuko duena.



Faktura horren muga eguna bi hilabete barru izango da eta, haien artean adostutakoaren arabera, ordainketa transferentzia bidez burutuko da.

“**Empresa Metalúrgica SL**” enpresak fitxategia prozesatzeko bidaltzen duenean **Enpresen Online Banka** bidez, ordainketa bi hilabete barru burutzeko prest geratuko da.

Hornitzaileak (Suministros Acero), hala erabakitzen badu, faktura aurretiaz kobratzea eskatu ahalko du honako estekan:

www.kutxabank.es/confirming





P6

URRATSA



Agindu emaila esleitzea



Arreta telefonoa: 944 017 907 Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**

Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Confirming fitxategia**

“Esleitu” aukera erabilita hauta daiteke bidalketa honetarako agindu emailea.



Confirming-a

Agindu-emaileak homitzaileak txostenak tresnak Laguntza

Lehenik, hautatu aurrez erabili duzun sorta bat, edo sortu berri bat; horretarako, lehenik, esleitu agindu-emailea.


Agindu-emailea

Alia: Empresa Metalúrgica SL
IFZ:
Izena: Empresa Metalúrgica SL
Kontua:

sorta

Izena:
Fitxategia:
Confirming mota: Hautatu

Exekutatzeko data: 
(eehbuuuu)
Sortaren data:
Guztira: 0 €

esleitu 

berria 

une honetako sortaren fakturak


Homitzailearen IFZ	Homitzailearen izena	Faktura zk.	Jaulkipen-data	Muga-eguna	Ordainketa-modua / Abonu-kontua	Zenbatekoa	Haut
--------------------	----------------------	-------------	----------------	------------	---------------------------------	------------	------



Adibide honetan, sorgailua erabiltzen den lehenengo aldia denez, "agindu emaileari" alta eman beharko zaio eta sortari esleitu zabalitzen den datu orria beteta (ezizena, IFZ, izena eta kontu zenbakia, etab.).



En Hemendik aurrera nahikoa izango da agindu emailea ageri den zerrendatik hautatzearekin.





P9

URRATSA



**Hornitzailearen alta eta
fakturen datuak**




Arreta telefonoa: 944 017 907 Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**

Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Confirming fitxategia**

Ondoren, “**une honetako sortaren fakturak**” ataleko “**gehitu**” aukera erabiliko dugu.



“**Inportatu dokumentu batetik**” aukerak Microsoft Excel kalkulu orri batean, Microsoft Access datu base batean edo testu fitxategi batean gordetako fakturetako datu guztiak automatikoki sartzea ahalbidetzen du (izena, kontu zk., etab.).




Jarraian ageri den leihoa bistaratuko da, faktura bakoitzaren datuekin: ordainketa modua (transferentzia edo txekea), zenbatekoa, fakturaren zenbakia, jaulkipen data eta muga eguna.



Leiho horretatik bertatik alta eman ahalko zaio ere faktura ordaindu nahi zaion hornitzaileari, aldez aurretik egin ez badugu. Horretarako, datu orria bete beharko da: ezizena, izena, IFZ/IFK, kontu zenbakia, etab.



Hemendik aurrera nahikoa izango da hornitzailea ageri den zerrendatik hautatzearekin.



URRATSA



**Sortaren datuak betetzea eta
sorta sortzea**



Arreta telefonoa: 944 017 907 Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**

Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Confirming fitxategia**

Sortari dagozkion agindu emailea eta fakturak esleitu ondoren, gainerako identifikazio datuak bete beharko dira. Datu hauek sorta beranduago aurkitu ahal izateko balio dute (izena, sorrera data, etab.). Sorta gorde eta aurrerago betetzen jarraitu ahal izateko **"gorde"** aukeran sakatu beharko da.

Ondoren, **"sortu"** aukeran sakatzean, fitxategi bat sortuko da sartutako datu guztiekin eta, momentu horretatik aurrera, **Enpresen Online Bankarekin** bidaltzea besterik ez dugu egin beharko fitxategia prozesatzeko.



Idatzi eta gorde fitxategiaren zenbatekoa, aurrerago, bidaltzeko orduan, eskatuko zaizun datua baita.



Momentu honetatik aurrera, fitxategia sortu da eta Enpresen Online Banka erabilia bidaltzea besterik ez dugu egin beharko prozesatzeko. Bidaltzeko, leiho honetan bertan ageri den "bidali" aukera erabil daiteke.

The screenshot shows the 'Confirming-a' interface with the following elements:

- Navigation menu: Agindu-emaileak, hornitzaileak, txostenak, tresnak, **Laguntza**, and a power icon.
- Message bar: Fitxategia behar bezala sortu da.
- Form sections:
 - ogindu-emailea**: Alia: Empresa Metalúrgica, IFZ: [input], Izena: Empresa Metalúrgica, Kontua: [input]. Button: esleitu >
 - sorta**: Izena: Ekaineko ordainketa, Exekutatzeko-data: 01062019, Fitxategia: Acero, Sortaren data: 2019/06/01 18:23:16, Guztira: 35.000 €. Buttons: berria, gorde, sortu, bidali >
- Table: **une honetako sortaren fakturak**

Hornitzailearen IFZ	Hornitzailearen izena	Faktura zk.	Jaulkipen-data	Muga-eguna	Ordainketa-modua / Abonu-kontua	Zenbatekoa	Haut
[input]	Suministrar Acero	123	25/02/2019	25/04/2019	Transferentzia: I	35000 €	[checkbox] [icon]
- Bottom navigation: gehitu, Inportatu dokumentu batetik, aldaketa masiboak, ezabatu





P14

URRATSA



Fitxategia bidaltzea



Arreta telefonoa: 944 017 907 Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**


Enpresen Online Bankaren erabilera gida. **Confirming fitxategia**

Goiko menuan ageri den "tresnak" erlaintza erabilita bilatu ahalko dugu sortutako fitxategia.

Nahi dugun fitxategia hautatzeko azken zutabeko hautaketa botoia erabili beharko dugu. **"Bidali"** aukeran sakatu ondoren, **Enpresen Online Bankaren** leihoa irekiko da automatikoki fitxategia bidali ahal izateko.



Idatzi eta gorde fitxategiaren zenbatekoa, aurrerago, bidaltzeko orduan, eskatuko zaizun datua baita.



tresnak


Hautatu zer fitxategi prozesatu nahi duzun. Horretarako, egin klik dagokion botoian.

Sortaren izena	Zenbatekoa	Fitxategiaren izena	Jaulkipena	Izapidetzea	Haut
Ekaineko ordainketa	35.000 €	Acero.QCONF	01/06/2019	01/06/2019	<input type="radio"/>
Otsailko ordainketa	35.000 €	Altzairu.QCONF	01/06/2019	01/06/2019	<input type="radio"/>

bidali > gorde honela ezabatu




Egiaztapen helburuetarako eta akatsak ekidite aldera, erabiltzaileak beherago ageri den leihoan idatzi beharko du prozesatzeko bidali nahi duen fitxategiaren guztizko zenbatekoa.



The screenshot shows the 'Fitxategiak' (Statements) section of the Kutxabank online banking interface. The user is in the 'Bidalketak' (Send) sub-section. The 'Bidalketa berria' (New statement) option is selected. The amount to be sent is 35,000.00 €. The statement type is 'CONFIRMINGAcero.QCONF'. The progress indicator shows 'Urratsa: 1' (Step 1) out of 2. The interface includes a navigation menu with options like 'Laburpena', 'Kontuak', 'Txartelak', 'Inbertsioak', 'Merkatuak', 'Maileguak', and 'Zerbitzuak'. A sidebar on the right contains sections for 'NIRE DATUAK' (My Data), 'NIRE KOMUNIKAZIOAK' (My Communications), 'SARTU HEMEN' (Log in here), and 'LAGUNDUKO DIZUGU' (We can help you).



Azkenik, "jarraitu" botoian sakatzean, beherago ageri den sinadura leihoa bistaratuko da: sinatzeko gakoa duen erabiltzailea izatekotan, eragiketa momentu horretan sinatu ahalko du eta fitxategia prozesatzera bidaliko da.




The screenshot shows the 'Fitxategiak' (Documents) section of the KUTXABANK online banking interface. The user is in the 'Bidalketak' (Submissions) tab. The interface includes a navigation menu at the top with options like 'Laburpena', 'Kontuak', 'Txartelak', 'Inbertsioak', 'Merkatuak', 'Maileguak', and 'Zerbitzuak'. The main content area is titled 'Fitxategiak' and has three sub-tabs: 'Bidalketak', 'Jasotzea', and 'Sorrera'. Under 'Bidalketak', there are three radio buttons: 'Bidalketa berria' (selected), 'Egindako bidalketak', and 'AEB34 transf. prozesatuak'. Below this, there is a field for 'Bidaltzeko fitxategi-mota aukeratu' with 'ordainketa-aginduak - orokorra' selected. A section titled 'Fitxategiaren bidalketa berria' shows 'Urratsa: 1 2' and a table of submission data: 'Fitxategi mota: ordainketa-aginduak - orokorra', 'Fitxategia', and 'Zenbatekoa: 35.000,00 €'. A 'Sinadura' (Signature) section contains instructions and a checkbox for '667 XXX X25 mugikorretik sinatuko da'. At the bottom, there are buttons for 'ITZULI', 'EZEZTATU', and 'ONARTU'. On the right side, there is a user profile section with 'Nire datuak', a 'AMAITU SAIOA' button, and a timestamp 'Aurreko konexioa: 19/06/01 17:42'. Below that is a 'NIRE KOMUNIKAZIOAK' (My Communications) section with links for 'Korrespondentzia', 'Abisu-postontzia', 'Dokumentuak', and 'Nire kudeatzailea'. At the bottom right, there is a 'SARTU HEMEN' (Log in here) section with links for 'Informazio fiskala', 'Sinadurak zain', 'Fitxategiak', 'Nire eragiketak', and 'Nire ohiko eragiketak'.



Momentu horretan sinatzen ez bada, eragiketa zain geratu dela adierazten duen mezu bat bistaratuko da:



"Ohartarazpena: eragiketa hau sinatzeko zain utziko dugu. Baimendutako azken pertsonaren sinadura jasotzean, automatikoki exekutatu da eragiketa".



Enpresen Online Bankaren barruan, eskuinean ageri den menu bertikalean, **"Sinadurak"** izeneko atala dago eta bertan aurki daitezke sinatzeko zain dauden eragiketak.





Arreta telefonoa: 944 017 907

Kontsultatu maiz egiten diren galderak:  **Laguntza**